

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko otsailaren 26a IV.urtea

Usurbil, 61. Zenbakia



***Euskal Herria nazioa
dela aldarrikatuz***



Txerrimunik ordainetan



Zorionak Aitor Lopez!
Martxoaren 4an etxeko txikiak urteak beteko ditu. Dagoeneko gizontxo bat egina zaude! Egun on pasa dezazula. Etxekoak



Ander Zuriarrain. Zorionak gure etxeko txikiari, martxoaren 9an 3 urte beteko dituzu eta! Muxu handi bat. Ama eta aita



Zorionak Andoni! 20a gero eta gertuago badago ere, oraindik bata aurrean. Zorionak otsailaren 25eko partez eta muxu handi bat. Arantza.



Zorionak Maialen! Otsailaren 18an 9 urte zenituenez zoriunik beroenak bidaltzen dizkizugu etxetik. Ondo pasako zenuen egun handi hori ezta?



Hori duk txapela hori! Otsailaren 26an egingo dituk 25 urte, oraindik txapela buruan sartzen al zaik? Zorionak Gari eta ez etsi! Familia eta lagunen partez.



Martxoaren 1a badator, eta zu, Xabier, egun horren zain egongo zara baietz? Zorionak Xabier Santxo eta urte askotarako Zure guraso eta familia guztiaren partez.



Kaixo Pitxurri! Otsailaren 24an 12 urte bete zenituen eta gu ez gara ahaztu. Zorionak eta muxu handi bat zure arreba eta gurasoen partez.



Zorionak Iñaki! Martxoaren 6an zure urtebetetze eguna denez muxu pila bat, ondo pasa eta zorionak berriz ere. Ama.



Aupa Nerea! Martxoaren 2an zure kontura parrandatxo bat botatzea espero dugu, eta ez nolana hikoia eh? Zure zain egongo gara, baina ez gasolindegian. Zorionak zure lagunen partez.



Zorionak Asier eta Odei! Egun on bat pasa dezazuela biok zuren urtebetetze egunean, otsailaren 27an eta martxoaren 13an. Familiaren partez.



Berandu xamar bada ere, otsailaren 14ko partez zorionak Inaxi Eizagirre. Martxoaren 1ean berriz, Angela Arrilagak beteko ditu. Ea biok orain bezain ederki jarraitzen duzuen. Zuen familia

Hurrengo alea: martxoaren 12a Agurrak ekartzeko epea: martxoaren 5a

Hildakoak



1999-02-14
Ana Arregi Ugalde
66 urte
Kaleberri



1999-02-14
J^o Mari Sagardia Salsamendi
83 urte
Kaleberri



1999-02-14
Josefa Galarraga Uzkudun
90 urte
Txokoalde

1999-02-09
Trinidad Carranza Calleja
76 urte
Kaleberri



1999-02-16
J. Mari Azkune Eizagirre
61 urte
Kaleberri



1999-02-18
Rosario Urkia Arruti
68 urte
Kaleberri



1999-02-19
Luciano Portoles Salvatierra
96 urte
Kaleberri

1999-02-20
Jose M^o Urbistondo Zendoia
92 urte
Txokoalde

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eidér Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arraga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain eta Arantxa Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Inaxio Usarralde.

Makekazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
16.30-18.30 astegunetan

Azala: Otsailaren 6an Iruñan egin zen udal hautetsien batzarreko bozeramaileak



Martxoaren 8an emakumeen eguna

Emakume batzuk

Urtero bezala, berriro ere iritsi zaigu EMAKUMEOKI egun berezi hau. Urte asko pasa dira EEBBetan lantegi bateko emakumeek planto egin zutela, eta geroztik munduko emakume guztiok egun hau dugu, emakume izateak nolabaiteko desberdintasunak badi-tuela oraindik gogorazteko eguna.

Feminismoa historikoki, bi mugimendu nagusitan bana dezakegu: alde batetik emakumearen egoera juridikoa eta politikoa hobetzeko sortutakoa, eta bestetik gizartearen aldaketa erradikalagoa bultzatuz egoera sozial, sexual eta politikoak aldatzeko sortutakoa.

Biak gizarte industrializatueta ematen dira, baina lehenengoa industria eta demokraziaren garapenean ematen den bitartean, bigarrena gizarte garatu eta nolabaiteko "ongizate soziala" duten gizarteetan kokatzen da.

Emakumeok XIX. mende bukaeran hasi ginen gure eskubideak aldarrikatzen, batez ere, botoa emateko eskubidearen alde, gobernu eta alderdi politikoen eragina izan zezan gero emakumeon egoera hobetzeko. Hala ere, urte asko pasa behar izan zuten botoa emateko eskubidea lortu aurretik.

60 hamarkadan S. de Beauvoir, Mead eta beste hainbat idazle feministen idatziak azaldu ziren eta hauek eragin handia izan zuten. Emakumeon egoera soziokulturala, abortoa, dibortzioa, antisorgailuen ezagutzea eta legalizatzea izan ziren mugimendu honen helburuak.


Gure herriko errealitatera itzuliz, ez dugu esango garai hobereak direnik talde dinamika eta mugimendu hauetan, denborak aldatuz baitoaz. Guk ezagutu genituen era honetako taldeak (bai feministak, ekologistak...) semaforo gorrian daude eta aztertzeo dauden hainbat gauza besteengan utzi ote ditugun irudipena daukagu.

Oro har, mugimendu feministei esker gauza asko lortu dira, baina oraindik ezin esan guztia lortuta dagoenik.

Bestela, kontuan izan datu hau: pobrezian bizi diren 1.300 milioiren artean %70 emakumeak dira. Bestalde, munduko alfabetatu gabeen gehiengoa emakumeak dira, eta leku guztietan gizonek baino lan gehiago egiten dute, bai gu bizi garen gizartean eta bai mundu osoan. Gauza asko daude hobetzeko eta lortzeko, **baina ibiliz egiten da bidea.**



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zorionak GARA

Dagoeneko hilabete pasa da GARA egunkari berria kalean dagoenetik. Urtarrilaren 30ean atera zen eta egun horrek ikusmin handia sortu zuen. Alde batetik kanpoko jendea etorri zela nabari zen. Errotatiba Usurbilen dagoenez, jende ugari gerturatu zen bertara GARAREN lehen aleari ongi etorria ematera; noski, lanera etorri zirenak ere baziren. Bestetik, egunean bertan, jendearen kuriosidadeak eraginda kioskoetan ez zuen asko iraun GARAK, azkar agortu ziren.

Guzti hau, parte hartu duten 10.000 akziodunei esker gauzatu ahal izan da eta guztira, 1.200.000.000 pezeta lortu dira. Ametsa errealitate bihurtu da! Zorionak guztioi! Zorionak GARA!

Usurbilgo herria ere zoriondu beharrean aurkitzen gara, batez ere, egin diren ekintza



guztietan parte hartu duzenoi eta lagundu diguzuen guztioi. Gure helburua Usurbilen 8.500.000 pezeta lortzea zen. Azaroan hasi ginen diru bilketarekin eta urtarrila bitartean 11.200.000 pezeta lortu dira. 250 usurbildar inguruk parte hartu du eta guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Eta nola ez, ezin ahaztu ezinbesteko laguntzaile izan diren HBko komitea, enpresariak, Aitzaga elkarte, Udala, Tabernarien

elkarte eta Aginagako Jai Batzordea. Eskerrik asko guztioi eman duzuen laguntzagatik.

Usurbilgo Baietz Fundazioa

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez **Noaua!k** beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak **Noaua!ra** bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

xirikitutik



Ez dira "Dolly" arku-meak bezain famatuak izango, baina hauek ere badute berezitasunik. Pasa den otsailaren 5ean ardi batek lau arku-me izan zituen Kalezarren, laukiak alajaina. Ardi errusiar honek, bere arku-meak bereizten ez du zailtasun handirik izango. Bi beltzak dira, zuria bestea eta txuri-beltza laugarrena.

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu
%50eko beherapenak

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

N • U
Ileapaindegia


MISTOA
Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51



Borja Pulido Orbegozo

Borjak 9 urte ditu. Duela hilabete batzuk inkesta egiten ari ginela bere erantzuna jaso bai, baina azkenean ez genuen inkesta hura argitaratu. Berak, ordea, *Noaua!*n atera nahi zuen. Horrela ba, berriketanerako elkarrizketa egin diogun lehen umea dugu bera.



Izeba Nievesek, zure amak... Noaua!n atera nahi zenuela esan didate egia al da?

Bai. Behin inkestako galdera egin zenidaten, baina gero ez zen inkestarik atera. Horregatik *Noaua!*n atera nahi nuen.

Aldizkaria irakurtzen al duzu?

Noaua! irakurtzea gustatzen zait eta ostiralero, ateratzen denean behintzat, irakurtzen dut.

Hala ere kirolak oso gustoko dituzu.

Bai, kirola ikustea eta egitea atsegin dut. Orain, eskolaz kanpoko kirolean nabil, baina gero futboleko jolastea gustatuko litzaidake.

Orain ez al duzu ba jokatzeko?

Oraindik txikiegia naiz. Eskolaz kanpoko kirolean ere futboleko jokatzeko dugu, baina txapelketik gabe. Entrenatzen eta partiduak jokatzeko ibiltzen direnak, ni baino haundiagoak, enbidia ematen didate. Eskerrak datorren urtean jokatzeko aukera izango dudana.

Hala ere udaran txapelketa batean parte hartzen duzue.

Harane futbol zelaian jokatzeko den txapelketa jokatzeko dugu. Orain dela bi urte aurrea gelditu ginen, gure taldean bi urte zaharragoak baikenituen. Iaz, berriz, bigarren gelditu ginen. "Telesforo ardoak" izena du gure taldeak.

Zein futbol talde gustatzen zaizu gehien?

Erreala. Bazkidea naiz eta etxean jokatzeko duen gehienetan aitarekin joaten naiz ikustera. Azken partidua At. Madriden kontra ikusi nuen eta Aranburuk bigarren gola sartu zuenean salto asko eman nituen.

Bartzelona edo Athletik?

Bartzelona. Errealaren ondoren gehien gustatzen zaida da Bartzelona. Athletik ez zait gustatzen. Bigarren mailara jeistea ez litzaidake axolako.

Errealeko jokalaririk onena?

Joxe Felix Guerrero. Aurten zorte txarra izaten ari da lesioekin eta ez du askotan jokatzeko, baina asko gustatzen zait. Bere anaia Julen baino hobea da. Idiakez ere ona da.

Eta zein da munduko jokalaririk onena?

Brasilgo selekzioan jokatzeko duen Leonardo da onena. Niri aurrelariak gustatzen zaizkit gehien, golak sartzen dituztenak. Nik jokatzeko dudanean berdin zait zein lekutan jokatu.

Futbola gustoko izan arren eskolan ere ondo zabilta ezta?

Orain arte bai behintzat. Laugarren mailan nago eta ez ditut nota txarrak atera.

Bertsolaritzan ere ibiltzen omen zara.

Aurten hasi naiz. **Joxe Mari Arzallus** da gure bertso irakaslea eta bertsoa zaharrak kantatzen ditugu. Gainera, maiatzaren 7an eskola utzita Zumaiara goaz bertsoak kantatzera. Hurrengo klaserako zein bertso kantatu nahi ditugun pentsatzeko esan digu Joxe Marik. Oraingoz guk koplak baka-rik egiten ditugu, bertsoak ez.

Eta zer moduz Joxe Marirekin?

Ondo. Batzutan zorrotza da, beste batzutan gu zirikatzen ibiltzen da, gezurrak esaten dizkigu nahi duenean.

Josu Aranberri

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubiaurua, 10 Tlf. 943 37 18 07
20170 USURBIL-GIPUZKOA



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55

**XABIER
EDARITEGIA**

• Pintxo aukera bikaina
• Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Trenbideko hesia

Duela kasi urtebete Irabi aldera joateko ibilgailuentzat bide berria egin zuten eta trenbidea zeharkatzeko auzoko bigarren pasabidea sarearekin itxi zuten.

Baina denak gustora ez non-bait eta norbaitek, bide berria luzeegi irudituta edo, oinezkoak pasatzeko bi aldeetatik zulatu zuen sarea. Orduetik gaurko egunera egoera honetan egon da.

Helduentzat pasabidea garbia eta aspaldikoa izanik apenas arriskua duen arren, haurrentzat arriskutsua izan daiteke. Honegatik, agian, Eusko Trenbideek berriro pasabidea

ixtea erabaki du. Oraingo honetan sarearen ordean hesi sendo bat ipini dute inork zulorik egin ez dezan. Ea honelaxe den eta zulatu gabe irauten duen. Azken finean pixka bat gehiago ibiltzea da arazo guztia eta lasaiago biziko gara.

Bestalde, Txokoalde auzo txikia izanik, lehen asko ez bagara gero eta gutxiago gara. Zoritxarrez, azken sei egunetan bi auzokide



joan zaizkigu gure artetik; **Joxepa Galarraga** Saltxipikoa eta **Joxe Mari Urbistondo** Leku Ederrekoa.

KALEBERRI

Eneko Harreguy



Datozenak etortzeko

Beltx-antxeokak ditu bai bizkarra, burua eta hegoak ere; txuri xamarra sabelaldea eta lepo ingurua, gorrixka. Isatsa urkilatu itxurakoa eta hego zorrotzak. Dagoeneko batzuek jakingo duzue zein animalia mota den. Eta ez dakizuenentzat beste arrasto bat: hegaztia da. Oraindik ere ez?

Ez nau batere harritu. Negua azken boladan haserre samar amaitu eta urtaro berriaren, udaberriaren, atarira heltzeko ez gaude hogeita hamar egunen buruan besterik; eta beraz, aipatu hegaztiak ez digu oraindik udaberriko lore koloreen aniztasunetan bere agerrerarik egingo.

Itzul inguruan ibiltzeari utzi eta orain arte asmakizun suertatu zaizuenaren berria argitzera zuzenduko naiz: enarek erakarri naute idaztera.

Urtero-urtero enarek gure etxeko teiletupeetan egiten dute beren kabia (egin egin behar da gero!!) gu esnatzean eta leihotik begiratzean gure begien zorionerako. Zori honen pausa eta irria nahi ez duenik ba al da munduan?

Nekeza bazaigu ulertzeko ere, badago. Entzun eta ikusi beharrraren tristura ere pairatu izan dut. Enarek etxeko fatxada zurian halako *zikin pintzelada* bi utzi dutelako gaixoei teiltupe-

tik erratza hatzaparretan hartuta, bestela iritsiko ez ziren kabiak botatzen!

Mesedez...Pentsa, enarek zein une ederrak iraganarazi dizkiguten eta zein diren zoragarri oskorripean dema-plazako petriletik kanpai-dorrera begiratu eta handik hara hegan ikusten ditugunean. Haatik, ez zait iruditzen honek kabiak botatzeko arrazoia izan beharko zukeenik.

Laster etorriko zaizkigu eta udaberri goizetako eguzki printzen artetik hona, hara eta haruntzago egingo dituzten joan etorriekin besterik ez dut pentsatzen.

ATXEGALDE

Auzoari begira...

Berriz ere betiko panorama, zu eta ni, biok parez-pare eta batak besteari ez dio ezer esaten. Orri txuriari begira geratzen naiz maiz, egin behar dudana zeharo ahaztuta. Baina, zer zen oraingoan egin beharrekoa? Azterketaren bat edo aspaldiko lagun bati esku-titza? Izan ere, azken hilabetean liburu artean murgilduta ibilita... normala da txoratu xamarra egotea!

Oaintxe gogoratu naiz, Noauako kronika idazteko tan nenbilen. Ea, bada, zer kontatzen didan nire auzo maiteak. Eta maitea diot hala dudalako. Oraindik gogoan dituduela

hamar bat urte Udarregiko plazan antolatzen ziren futbol txapelketak. Uda aldean izaten ziren, eguzkiak Udarregiko harria bero-bero uzten zuen eta gu han eserita egoten ginen goxo-goxo. Txapelketako talderik onena Atxegaldekoa zela esan beharrik ez dago. Guk admirazioz ikusten genituen gure auzoko mutil katxarrok haiek eta orduztik, seguruenak, daukat atxegalde tarra izatearen sentimendu ona.

Nire oroitzapenetan murgilduta balkoira irten eta hara non ikusten dudana udaltzaingoa, Karobi parean aparkatutako kotxei isuna jartzen. Oraindik

Amagoia Mujika



gogoratzen dut, nire kronika batean auzotarrei eskatu nien kotxeak egoki aparkatzeko; eta jakin ezazue, nik kotxea espaloian gainean uzten dudana bakoitzean, (eta hau askotan izaten da ez baitago ia inoiz lekuri aparkalekuan) halako har gaizto bat izaten dudala hemen barruan, ez naiz batere lasai gelditzen, baina!

Nire kontzientziaren kontuak ahaztu eta atzeko balkoira irten naizenean... Hara! parke berri bat jarri dute "plaza txikian" (nik hala deitzen diot eta...). Auzoko haurrek eskertuko dute, orain arte ez baitzuten itxurazko parkerik.

KALEZAR

Auzo zahar honetan...

Aiene! Ez dut pentsatu ere egin nahi egunero edo astero idatzi behar izango banu. Hilabetean behin idaztea egokitzen zait eta ez dakizue nolako buruhaustea izaten

dudan. Beharbada nire errua izango da, dena azken unera-ko uzteko ohitura txarra baitut.

Auzo zahar honetaz zer esango dut ba. Aldaketa ugari gertatzen ari da, baina bada nire arreta bereziki bereganatzen duen gauza bat: lehen, etxebizitza gutxiago zegoen eta, beraz, bizilagun gutxiago eta Mertxek denda bat zuen bere etxe

azpian. Gaur egun, ordea, etxe berriak eraiki dira eta jende gehiago etorri da gure auzora bizitzera, hala ere, ez dugu bertan, auzoan, ezer erosterik, beti edozertarako herrira jeitsi behar.

Garraioa etxe guztietan dagoelako edo, ez da arazo handirik izaten dendetara jeisteko. Ogia erosteko aukera baguen, baina hau ere herriaren beste aldera joan zaigu.

Eskerrak bizilagunen artean nahikoa ondo konpontzen garen eta zerbait falta dugunean ondoko atea jotzea besterik ez dugun.

Ainara Uribe



SANTUENEA

Edukinontziak falta zaizkigu

Isaac Muñoz



Santueneko auzokide batzuk kontenedoreak falta zaizkigula konturatu dira, hau dela eta, niregana etorri dira kexatzera. Horregatik *Noaualn* zerbait jartzea erabaki dut edukinontzi hauei buruz, gure auzoaren arazo larri bat dela ikusirik. Nik halaxe jarriko nuela esan eta, noski, hitza bete behar!


Gau batean auzoan buelta bat eman nuen, jendeak zaborrak nora botatzen dituen jakiteko. Auzotarrek zaborrak kale izkinetan eta zabortegi antzeko batzuetan uzten ditu. Noski, horren ondorioz katuek beren festak antolatzen dituzte gau-

ro; dena sakabanatuta eta poltsa guztiak irekita uzten dituztelarik. Hori guztia zaborbiltzaileentzat geratzen da eta, denok dakigun bezala, lan hori ez da batere atsegina.

Beste gauza batez ere konturatu nintzen, zera da: beirarentzat eta kartoiarentzat bi kontenedore daudela. Bestalde, piletzako kontenedore bakarra dago. Baita ere aipatu, kartoiarentzako kontenedore hauek beteak daudenez, jendeak kartoiak lurrean utzi behar izaten dituela.

Horrelaxe eman nion buelta txiki hori auzoari, aspaldiko partez, eta papera eta hoberena

boligrafoa hartzea zela iruditu zitzaidan.



URDAIAGA

Eguraldia albiste

Joseba Zubeldia



Azkenaldi honetan eguraldia izan da albiste auzo honetan beste zenbait lekutan bezala. Negu gogorra ari da izaten aurtengoa eta urte sasoi honi dagokion bezala tenperatura baxuak eta elurra aipatu behar, bai elurra!.

Egin dituen izozteetaz gain otsailaren 10ean elurturik, zuriz mozorroturik agertu zen San Esteban auzoa. Denbora gutxirako izan bazen ere, elurrak, eta kazkabar erauntsiek zenbait alditan, mantu zuri bat erantsi zioten, beste leku batzuei bezala, auzo honi ere. Beti ere ilusioa egiten du elurrak, nahiz eta aurtengoak,

orain artekoak behintzat, segituan agortu ziren.

Beste gai bati helduz, udaletxeari eskaera bat egin behar, izan ere, gure auzo honetan gauero errepikatzen den iluntasuna aipagarria baita. Plazako argiak dira bertan dauden bakarrak eta inguruak eta errepideak oso ilunak gelditzen dira. Santueneatik gora datorren errepidean gauero ibiltzen da norbait, Sanatoriokoak direla edo beste edo-

zein dela, noiz edo noiz sustoren batzuk hartuz. Beraz, ez litzateke kalterako izango argi poste batzuk jartzea bai errepidean eta bai kaxko honetako aparkaleku eta inguruetan.



AGINAGA


Frontoia Orain

Honezkerok denok dugu "Frontoia Orain" taldearen berri. Izenak dioen bezala, helburu horrekin sortu da taldea.

Duela urte batzuk hasi zen frontoi estaliaren istorioa, baina ahaztu samarra ere bagenuen dagoeneko. Orain, ordea, talde berri honen sorrerarekin, bidea edo proiektua azkartuko denaren esperantza badago aginagarren artean.

Ja ospatu du talde honek lehendabiziko bilera, auzo eta alkatearekin batera. Bilera honetarako deia postakutxa bidez egin zuten taldekideek

eta hemendik barkamena eskatu nahi diete deia iritsi ez zaien auzokideei. Izan ere, bilerarako deia ez da etxe guz-



Iratxe Begiristain



tietara iritsi eta hau ez dela berriz gertatuko jakinarazi nahi dute.

Bilera otsailaren 11n ospatu zen zineman. Bertara joandako auzokoak zein antolatzaileak pozik eta esperantzaz irten ziren bertatik. Beraz, proiektua badirudi martxan jarri dela eta berandu baino lehen izango dugula aginagatarrok frontoi estalia.

Ea, bada, hala den. Izan ere, honelako gauzak oso mantsoak izan ohi dira eta denok gustora hartuko dugun frontoi horren zain gelditu beharko pixka batean.

ZUBIETA

Zubietako buelta

Horrela deitzen dio normalean jendeak gure herria punta batetik besteraino zeharkatzen duenari. Eskuarki usurbildar eta lasartearrak izaten dira, baina badira beste



tokitakoak ere. Normalean oinezkoak izaten badira ere, bizikletan eta korrika ibiltzen denik ere bada, denak helburu berdintsu batekin: hain osasuntsua den haize pixka bat hartu eta paisaiaz gozatzeko aukera izan.

Oinezkoetan, emakume eta jubilatuak izaten dira normalean gehien ibiltzen direnak, nagusiki astegunetan eta bazkalondoan. Txandala jantzi, oinetakoak ipini eta hor etortzen dira bata besteari kontu-kontari: senarraren axolagabekeria, umeen nota txarrak, pensioen ahalmen eskasa...

Arratsalde eta ilunabarrean gehiago nabari da jende gaz-

Mikel Bengoetxea



tea, kirola egin nahian, bai bizikletaz edo bai korrika, erraza goa da hauek bakarka ikustea. Gazteek, ez dute denbora asko paisaia ikusteko, arnas estua daramate eta ez dute solasaldirako gogo gehiegirik izaten.

Asteburuetan, batez ere igandeetan eta eguraldiak laguntzen badu, izaten da eromena. Era guztietako jendea etortzen zaigu, orokorrean beren tokitik joaten dakiten arren, batzuk ez dute zirkulazio kodea errespetatzen eta zubietarrok aurrean ipintzen diren oztoppak saihesten ibili behar dugu. Hala ere, denontzako tokia dago gure herrian.

Udarregi zaharreko ideia lehiaketa atzeratua

Udarregi zaharra eraberritzeko ideia lehiaketaren oinarriak otsailaren 23ko plenoan onartzea zen udal ordezkarien hasierako asmoa. Hala ere hau ez da posible izango. Iritzi desberdinak agertu direnez, oinarri hauekin aurrera egin aurretik arkitektoak informe bat egin beharko du.

Otsailaren lehendabiziko egunean herriko taldeekin egin zen bileran gauza bat argi gelditu zen: hitzaldiak emateko, antzezlanak aurkezteko, diapositiba emanaldiak egiteko, auditorio modura funtzionatzeko... 150-200 lagun inguru sartzen diren areto handi baten beharra dago. Honekin batera, erakusketa aretoa, gela txikiak jartzeko proposamenak ere izan ziren.

Beste batzuk, ordea, Udarregi zaharrari ahalik eta etekin handiena atera behar zaiola esaten dute. Honela,



soto bat, azpiko solairu bat egitea proposatzen dute. Honek, noski, kostuen handitzea ekarriko luke.

Azken batean hiru aukera ikusten dira:

- 1- Eraikuntza dagoen beazala, eskatutako beharretara egokitu.
- 2- Eskatutako beharretara egokituz berria eraikitzeko dena bota.

3- Dena bota eta eskatutako beharretara egokituz azpian sotoa duela berria eraki.

Hori aztertzeko, arkitektoari informe bat egitea eskatu zaio, beti ere sotoa egitea posible den jakiteko, zer eta nola egin beharko litzatekeen bere iritzia jakiteko eta ideia lehiaketarako gutxi gorabeherako aurrekontu bat izateko.

Babes ofizialeko etxeak hartzeko aukera izateko baldintzak onartu dituzte

Txaramunton, Galtzaragaina aurrean eta Aginagan laster batean egingo diren etxeetan babes ofizialeko etxebizitzak egongo direla gauza jakina da. Hauetara apuntatzeko deialdia noiz egingo den jakin ez arren, udalak babes ofizial horietara aukera izateko bete behar diren baldintzak onartu zituen pasa den otsailaren 23ko plenoan.

Baldintzak orain artekoak baino sinpleagoak izango dira. Lehen, Gobernuaren laguntza ez zutenak, soldatarik gabekoak baztertu egingo ziren. Orain, herrikoa denak eta etxebizitza falta duenak, nahiz eta Gobernuak emandako interes bazuak lortzeko aukerarik ez izan, hauetako babes ofizialeko etxe bat hartzeko aukera izango du.

Txaramunton 17 izango dira babes ofizialeko etxebizitzak, 12 Galtzaragaina aurrean eta Aginagan 18, Aginagan lehentasuna bertakoek izango badute ere. Hiru etxebizitzetan izen-emateko aukera izango da. Beraz, babes ofizialeko etxebizitza hauen zain zaudeten guztiok adi egon, laster irekiko baitira izen emateko epeak.

Zinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1. behekoa,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



TABERNA

"GVRE PRESOK

HERRIAN BEHAR DITVGV"



Iraza kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

Haur jantziak



Pauma

Kale Navusia, 2 ☎ 943 36 59 43

32 orduko lanastea onartu da udalean

Pasa den otsailaren 23an egin zen plenoan 32 orduko lanasteari buruzko proposamena onartu zen. Proposamen honen arabera, udaleko langileek astean 32 ordu, 45,5 aste eta urtean 1.456 lanordu izango dituzte erabakia gauzatzen denean. Herri Batsunako zinegotziek eta Izaskun Maiz independenteak baiezkota eman zuten, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak, berriz, kontrako botua.

Langileen asanbladak proposamen honi onespena eman zion otsailaren hasieran egin zuten batzarrean. Honen arabera, udaleko langileak 32 orduko lanastea izatera pasako dira. Urtean 45,5 lanaste eta 1456 lanordu izango dituzte, egungo konbenioan baino 216 ordu gutxiago.

Proposamen hau aurrera ateratzean, ordea, lanpostu berriak sortuko dira udal zerbi-



tzetan. Bost lanpostu berri sortzen dira erabaki honen ondorioz: idazkaritzan bat, errejistrorako, kalegarbitzaile bat, iturgina (ur irakurketa eta obretarako), kontuhartzailtzan errekaudardore bat eta hezkuntzan, garbitzailea, astean 20 orduz. 32 orduko lanastea onartzean bost lanpostu hauek sortuko direla esaten bada ere, berez lau sortzen

dira, lehen udalak ez baitzuen ur irakurketa egiten.

Plenoak proposamena onartu badu ere, 32 orduko lanastea ez da oraindik martxan jarriko. Zerbitzuak ez murrizteko, lehendabizi lanpostu berrietarako jendea lortu nahi da. Beraz, langile berriak hartzen direnean murriztuko da udaleko langileen lanaldia.

Udal etxebizitzak alokatzeko oinarriak onartu dira

"Maixu etxe" izenez ezagunagoak diren etxebizitzetatik bat hutsik dagoenez, udal etxebizitza hau alokatzeko oinarri berriak idatzi eta onartu ditu udalak. Aurrez zeuden oinarriekin alderatuz zenbait aldaketa egin dira eta otsailaren 23ko plenoan oinarri berriak onartzea erabaki zuten. Hutsik dagoen etxebizitza alokatu nahi duenak martxoaren 1etik 20ra egin beharko du eskabidea. Oinarri berriak zeintzuk diren jakin nahi dituenak, berriz, udalean izango ditu.

Ugarteko lokalaren erabilera konkurtsora atera du udalak

Azkenengo alean Ugarteko lokalaren goiko aldea Gorostitxo eztiola elkartearen esku utzi zuela esaten bagenuen ere, ez da horrela. Hasiera batean hori zen udalaren asmoa, baina arazo batzuk tarteko, lokal honen erabilera konkurtsora atera behar izan dute. Usurbilgo elkarteek lokal honen erabilera eskatu dezakete datozen egunean. Izan ere, martxoaren 3an amaitzen da horretarako epea. Oinarriak nahi dituenak udalera jo dezake.

TXIMINIA ALTZARIAK

Osinalde industrialdea
(Aizpurua autobusen aldamenean)

Tel.: 943 37 09 66

**BISITA EZAZU
ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT
USURBILEN BERTAN.
PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.
ESKAINITZA BEREZIAK BETI!!**

Inauterietako birusarekin gora eta behera

Gripeak, urak, birusek, beherakoek, gorakoek... zeresan ugari eman dute inauteri hauetan. Tripako min ugari sortu ditu ostegunean hasi eta astelehena bitartean Usurbilgo auzo guztietara zabaldu den gaixotasun arin honek. Uraren egoera txarraren ondorioa zela zabaldu zen hasiera batean, baina dirudenez, kanilako ura ona izan da egun hauetan.

Ostegun gauean eman ziren lehenengo kasuak. Zenbait pertsona, umeak gehienak, gorakoak eta diarrea izaten hasi ziren. Sintoma hauek berehala zabaldu ziren herri guztira, izan ere, ostirala eta astelehena bitartean asko eta asko izan dira "birus ezezagun" honen hatzaparretan erori direnak.

Egun batetik bestera, ondo egotetik tripako mina, gorakoak eta beherakoak edukitzera pasa da jende asko. Ez da oso larria izan, gehienetan egun bat edo bi iraun baitu. Nahiz eta jende ugari izan gaixotasun arin honen eraginak, ostegunetik astelehenera bitartean, 26 mediku kontsulta bakarrik egin dira. Dirudenez ez da oso larria izan, osasun egoera hain ona ez zuten per-

tsonengan izan duen eragina haundiagoa izan bada ere.

Erroizpeko presatik datorren urarekin zalantzak

Hala ere adituek ezin dute gaixotasun arin honen jatorria aurkitu. Hasiera batean kanilako ura edateagatik zela zabaldu zen herrian, baina ura aztertu ondoren uraren egoera ona izan dela agertu dute egin diren azterketa guztiek. **Isidoro Iturralde** botikariak egin zituen uraren azterketak eta bere esanetan ura betiko moduan zegoen, ondo. "Gaixoaldi hauen berri jakin genuenean azterketak egiten hasi ginen. Añarbetik eta Erroizpetik datozen urak aztertu genituen eta ura baldintza onetan zegoen, ez genuen ezohiko ezer aurkitu".

Zenbait komunikabidetan, Erroizpeko presako ura edaten duten auzoetan gaixoaldi

Zenbait komunikabidetan Erroizpeko presako uraren errua izan dela esan dute


gehiago izan direla agertu bada ere, informazio hau gezurtatu nahi izan dute **Isidoro Iturralde** eta **Joxe Antonio Altuna** alkateak. Azken honen esanetan, "larunbateko panorama ikusita, eta jendeak kanilako ura edatearen ondoriozko gaixotasuna izan zitekeela pentsatuta segurura jo genuen. Badaezpada ere, herri osora Añarbeko ura banatzea erabaki nuen. Ez Erroizpeko ura txarra zelako, Añarbekoa gehiago kontrolatzen dutelako baizik". Bai Añarbeko adituek, eta bai botikariak, Erroizpeko presako ura ere aztertu zuten, eta ez zuten ezer txarrik aurkitu.

Kanilako ura edan ez dutenak ere bai

Jende askok gaixotasun honen jatorria kanilako urarekin lotu badu ere, ur hau edan ez duen pertsona ugari gaixotu dira egun hauetan. Botikariaren esanetan intoxikazioen hauek nola zabaldu diren jakitea ez da erraza. "Hasieran kanilako ura zela uste bazen ere azterketak normalak izan dira. Gainera, kanilako ura edaten ez duen jende askok jasan ditu gaixotasun honen sintomak. Kanilako ura edaten ez dutenek ere tripakomina, gorakoak eta beherakoak izan dituzte". Eta ez hori bakarrik, etxe batzuetan familiako kide batzuk gaixotu dira, eta beste batzuk ez. Beraz, botikariaren esanetan, ez dago garbi zein izan den "inauterietako birus" honen jatorria, ezta nola zabaldu den ere.

Orain, uraren azterketa bakteriologikoaren emaitzen zain daude adituak. Gaixotasun hau zabaldu duena ura den edo ez Bartzelonan egingo dituzten azterketen ondoren jakingo dugu.

Josu Aranberri



Egun batetik bestera ezin txanda hartu

Azken egun hauetan izan diren gaixotasun kontuen ondorioz osasun arloa herriko albiste nagusia izatera pasa da berriz ere. Azken gertakizun hauek anbulatorioko martxa aldatu ez badute ere, abenduan eta urtarrilean izandako gripe epidemiak herriko anbulatorioko zenbait gabezia agerian utzi ditu. Medikuarekin kontsulta izateko, adibidez, egun batzuk itxaron behar direla kexatzen da jendea.

lazko urte amaieran eta aurtengoaren hasieran Euskal Herri osoan zabaldua egon den gripe epidemiak anbulatorioen martxa erabat aldatu zuen. Medikuarekin kontsulta izateko egun bat baino gehiago itxaron beharra normala zen garai hartan, medikuek gaixo kopuruaren igoera horri ezin baitzioten aurre egin.

Horixe gertatu zen Usurbilen ere. Medikuarengana joateko txanda egun batetik bestera hartzea ezinezkoa zen. Gaixo egon eta medikuarengana joateko gutxienez hiru egun itxaron beharra askori gertatu zaio. Are gehiago, egoera ikusita larrialdietarako bidea hartu zuen jende askok.

5.432 kartilla daude

Gaur egun anbulategiko osasun zerbitzuak aurrera eramateko hiru sendagile daude anbulategian. **Trassorras** eta **Zubizarreta** dira mediku titularrak eta **Medina** pediatra. Guztira 5.432 kartilla daude herrian. **Trassorasek** 2059 kartilla ditu momentu honetan eta **Zubizarretak** 2747. **Medina** pediatrak, berriz, 626 hurrei eskaintzen die osasun zerbitzua.

Osakidetzak aholkatzen duenez, mediku batek normalean 2.000 kartilla inguru eduki



beharko litzuzke (pediatrari ez dagokio kopuru hau). Donostiako eskualdeko batez bestekoak kontutan hartzen baditugu, gaur egun, batez beste 2.132 kartilla ditu sendagile bakoitzak. Usurbilen eta beste anbulatorio askotan, ordea, ez da hori gertatzen.

Trassorrasek baldintzak betetzen baditu ere, **Zubizarretak** askoz jende gehiagoren beharrei aurre egin behar die. Honela, lehenengoarekin txanda egun batetik bestera hartu badaiteke ere, bigarrenarengana joan behar dutenek gutxienez bi egun itxaron behar izaten dute, premiazko kontsulta ez bada behintzat.

1998ko abenduan 462 kontsulta izan zituen **Trassorrasek**,

Trassorras: 2059 kartilla
Zubizarreta: 2747 kartilla
Medina (ped.): 626 kartilla

1998ko abendua

Trassorras: 488 kontsulta
Zubizarreta: 633 kontsulta
Medina: 422 kontsulta

1999ko urtarrila

Trassorras: 488 kontsulta
Zubizarreta: 633 kontsulta
Medina: 422 kontsulta

633 **Zubizarretak** eta 422 **Medinak**. 1999ko urtarrilean, berriz, 488 pertsona pasa ziren lehenengoaren kontsultatik, 703 bigarrenetik eta 390 hirugarrenetik. Egun normal batean, 20-25 pertsona pasatzen dira **Trassorrasen** kontsultatik eta 35-40 **Zubizarretarenetik**.

Lasarte-Usurbil inguruko lehen mailako kontsultako mediku nagusia den **Joxe Felix Ruedaren** esanetan bi sendagileek kontratu desberdinak dituzte: "**Trassorras** aspalditik ari da lanean anbulategian eta kontratu zaharra du, hiru orduz egoten da. **Zubizarretarena** desberdina da, 8.30etatik 14.00etara egoten baita".

Gauza bat argi dago: **Zubizarretarekin** txanda hartu nahi dutenek gutxienez bi egun itxaron behar izaten dute. Zer egin hau konpontzeko? Hirugarren sendagile bat etortzea ezinezkoa da, 1.000 kartilla gehiago behar lirateke-elako. Konponbidea kartilla kopurua parekatzea izango litzateke. Hala ere, kontratu desberdinak dituztenez hori ezinezkoa da **Ruedaren** esanetan.

Josu Aranberri



Usurbilgo udal ordezkariak Iruñako Euskal Herriko udal hautetsien biltzarrean

Euskal Herriko 666 alkate eta zinegotzik udal izaera duen erakunde nazionala martxan jarri zuten pasaden otsailaren 6an Iruñan egin zen udal hautetsien biltzarrean. Tartean ziren herriko udal ordezkariak ere. Joxe Antonio Altuna alkatea eta Lurdes Jauregiberri, Agustin Lizaso, Izaskun Maiz eta Luis Mari Ormaetxea zinegotziek parte hartu zuten biltzar historiko honetan.

Ikusmin izugarria sortu zuen 1999ko otsailaren 6ko udalerrien biltzar honek. 1931. urtean Iruñan egin behar zuten Euskal Herriko udalen asanblada, baina gobernadore errepublikarrak debekatu egin zuen. Honela, Lizarrako batzarrak izena hartu zuen udal mugimendu haren. Aurtengoan, ordea, ez da inolako debekurik izan. 68 urte beranduago Iruña bihurtu da Euskal Herriko udal hautetsien topagune garrantzitsuenaren hiriburu.

Zuberoa, Lapurdi, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hiriburuak ordezkatu dituen



Argi: Argia astekaria

erakunde nazionala martxanda. Euskal Herriak 1931ko alkatteen mugimendua gertatu zenetik ez du horrelakorik eza gutzen, baina Iruñako Carlos III aretoko ekitaldian Euskal Herriko 302 udaletako ordezkari biltzeak marka guztiak hautsi zituen. Horietako 96 Bizkaikoak ziren, 87 Nafarroakoak, 79 Gipuzkoakoak, 25 Arabakoak eta 15 Lapurdikoak. Izan ere, Euskal herri osorako erakunde bat eratzeko urtarilaren 29an 21 alkatek,

Joxe Antonio Altuna barruan, zabaldu zuten deiak erantzun zabala izan zuen. 666 udal ordezkari "udal izaeran oinarritutako euskal instituzio nazionala" eratzearen alde egin zuten.

Udal hautetsiek biltzarrean aho batez onartu zuten agiria- ren arabera, erakunde berriak bost helburu nagusi izango ditu:

1- Euskal Herria nazioa dela aldarrikatuko du.

Joxe Antonio Altuna. Herri Batasunako ordezkaria. Alkatea



"Biltzarra arrakastatsua izan da, baina aurrerantzean lan asko dago egiteko"

Iruñakoa aurretik egin diren lanen isla litzateke. Euskal Herrian ditugun arazo amankomun batzuei erantzuna emateko esparru bat sortu da. Jendeak oso ondo erantzun du, dena oso ondo joan da, baina oraindik lan asko dago egiteko. Hiru alderdiek gauzak ondo landuta eraman badituzte ere, lan egiteko modu desberdinekin topatuko gara hemendik aurrera.

Lurdes Jauregiberri. Euzko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia



"Edukina luzera eman beharko zaio, hemendik aurrerakoa da garrantzitsua"

Interesantea iruditu zitzaidan, agian edukin gehiegirik gabea. Aurreneko bilera bat izan zen, denak elkartzearen poza ematen zuena, iparraldekoak, nafarrak... Azken finean edukin gabeko gauza anekdotikoa izan zen, baina edukina luzera eman beharko zaio, hemendik aurrerakoa da garrantzitsua. Biltzearen aldetik positiboa izan zen, alde hortatik oso polita.

2- Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzeari laguntza emango dio, Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatuz.

3- Erakunde iraunkorra izateko helburua du, borondateak pilatu eta batzeko sortua baita, eta ez beste erakunde batean bihurtzeko asmoarekin.

4- Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen lagunduko du, hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa eta lurralde antolaketa bezalako esparruak landuz.

5- Nazioartean Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdina dela adieraziko du.

Joxe Antonio Altuna, agiri hau sinatu zuten 21 alkateen artean zegoen. *"Biltzarra oso ondo antolatuta egon da, detaile guztiak zaindu baitira. Laurgainen, Aian, 21 bozermailleek sinatu genuen akordioa gero Zarautzen aurkezteko urtarrilaren 29an. Hemen eman zen aurrera jarraitzeko pausoa eta beste udaletako ordezkari guztiei Iruñan biltzeko deia egin genien"*. Hasierako mahai hau 21 alkatek osatzen bazuten ere, Iruñan, udal ordezkarien biltzarrean, aurrez aipatutako hel-


Beste lau helbururekin batera, Euskal Herria nazioa dela aldarrikatuko du udal hautetsiez osatutako erakunde berriak

buruak aurrera atera nahian lan egingo duen mahai iraunkorra osatu zen.

Euskal Herriko sei herrialdeak ordezkaturako dituzten 10 kidek osatuko dute mahai iraunkorra, Basauri, Hondarribia, Audio, Lesaka, Beasain, Aulesti, Etxarri-Aranatz, Urretxu, Agurain eta Ostankoko alkate-

ek hain zuzen ere. Aho batez onartu ziren Batzorde Iraunkorra osatzeko proposatutako 10 hautetsiak: EAJko bost, HBko bi, EAKo bi eta ABko bat.

Honekin amaitu zen "marko juridiko eta politiko berri baterantz euskaldunek elkarrekin ematen duten lehen pauso garrantzitsu gisa" hartua izan den 1999ko otsailaren 6ko udal ordezkarien biltzarra. Gontzal Agote kazetariak hurrengo egunean Gara egunkarian zioen bezala, *"jendea oso gustora atera zen Carlos IIIa zinematik, jakin bazekiten atzoko pelikularak jarraipena izango duela"*.



Arg. Argia astekaria

Izaskun Maiz. Zinegotzi independentea.



"Iruñan denok biltzea beharrezkoa zen. Lurraldetasuna kontutan hartzeko gauza izango da"

Pozgarria izan zen. Hainbat partidu politikotako jendea han biltzea oso pauso garrantzitsua izan da aurrera begira. Herri honetan pakea nahi dugu, eta gure arteko adostasuna lortzea da horretarako lehen pausoa. Euskal Herriaren lurraldetasuna aldarrikatu zen han eta horren adierazle zen han bildu ginen lurralde desberdinetako jendea. Zerbaiten hasiera izan da hau.

Luis Mari Ormaetxea. Eusko Alkartasunako zinegotzia



"Gure kezkek aztertzeko eta konponbidea emateko gunea"

Aurrerapauso garrantzitsua dela iruditu zait, herrialde guztietako udal ordezkariak biltzen dituen foro bat baita. Orain arte badaude beste foro batzuk, baina ez dute Euskal Herria osoa biltzen. Hor badaude hainbat arazo eta hainbat gai amankomunak ditugunak, hasi kulturatik, ekonomia, alderdi soziala... Gure kezkek aztertzeko eta konponbide amankomunak emateko gunea izango da.


Usurbilgo udala 1931ko udalerrien biltzarrean

1 999ko otsailaren 6an Iruñan egin zen udalerrien biltzarra ez da gaur goizeko kontua. Historian zehar, uste baino indar handiagoa izan dute udalek, eta hauen asanbladak ere ohizkoak izan dira azken 100 urte hauetan. Hala ere, bada eragin eta helburuak kontutan hartuta, esanguratsua izan zen gertakari bat: 1931ko udal mugimendua.

Errepublikak ezarri berria, itxaropen giroa bizi zen garai hartan. Erregimen errepublikarrean hasierako giro aldarrikatzaile eta errepublikatiboa izan zen Euskal Nazioaren eztabaida kalera eramatea lortu zuen mugimenduaren jatorri garrantzitsuena. Euskal autonomiaren aldeko mugimendu honek ekainaren 14an Euskal Herriko udalen gehien-goia Lizarran biltzea lortu zuen.

Errepublikak ezarri ondoren 1931ko martxoan udal hauteskundeak egin ziren Euskal Herrian eta hautagai nazionalistak atera ziren garaile. Getxoko alkatea zen Joxe Antonio Aguirre buru zela, Getxo, Mundaka, Elorrio eta Bermeoko alkateek hasi zuten mugimendu autonomista hau. Izan ere, Estatua nahiz Euskal Herria era berri batez egituratu beharrak, euskal herritarren arteko batasuna aldarrikatuz Euskal Herriko estatutu bat egiteko bidea ireki zuen. Eusko Ikaskuntzak egingo zue estatutu proiektua, baina gero udalek onartu behar zuten hau, gero Gorteetara aurkezteko.

Usurbila ere iritsi zen hasierako mugimendu hura. Garai hartan, **Domingo Arrillaga** zen alkatea eta **Nazario Aizpurua**,



Andres Iribar, Francisco Salsamendi, Atanasio Arce, Raimundo Illaramendi, Joaquin Salsamendi, Ignacio Urquia, Jose Antonio Bereciartua eta Jose Miguel Beguiristain beste udal ordezkariak. 1931ko apirilaren 25ean egin zen ohizko plenoan adibidez, aurrez aipatutako Bizkaiko udalek hasi zuten mugimenduarekin bat egitea onartu zuten udalak.

1931ko udalen mugimenduak lehen pausoak Bizkaian eman bazituen ere laster zabaldu zen Pirinioz honantzako lau lurraldeetara. Ekainaren 28an Gorteetarako hauteskundeak ziren eta ordurako Euskal Herriko estatutua onestea zen udalen helburua.

Gipuzkoako autonomia estatutua aztertzen

Maiatzaren 9an Azpeitia, Bergara, Zumaiia eta Andoaingo udalek eskatuta, Gipuzkoako autonomia estatutua aztertu eta onartuko zen Gipuzkoako udalen asanbladarekin, aho batez bat egin zuen Usurbilgo udalak.

Honez gain, Gipuzkoako estatutua Euskal Herriko estatutu orokorrean egokitze-ko, Euskal Herriko udalen asanbladarekin ere bat egin zuen. **Domingo Arrillaga** alkatea izendatu zuten bi asanbladetarako prokuradore.

Usurbilgo udalak erabateko adostasunez bat egin zuen 1931ko Euskal Herriko udalen asanbladarekin

Ekainaren 11an Gipuzkoako udalen asanblada burutu zen Azpeitian. **Andres Iribar, Atanasio Arce** eta **Francisco Salsamendi** joan ziren Usurbilgo udalaren ordezkari bezala. Eusko Ikaskuntzak aurkeztutako estatutu proiektua aztertu ondoren, gerora garrantzia handia izango zuten zenbait zuzenketa onartu ziren bertan.

Udalen mugimenduak 1931ko ekainaren 14an

Lizarran jo zuen gailurra. Egun bat lehenago, udalen beste bilera batera joateko Diputazioak luzatutako gonbidapena jaso zuen Usurbilgo udalak, baina hara ez joatea erabaki zuten, baina bai Lizarrara joatea. **Domingo Arrillaga, Joxe Miguel Begiristain eta Ignacio Urkia** Estatutua eztabaidatu eta onartzeko Lizarrako "La teatral Estellesa" delakoan bildu ziren Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 485 udal ordezkari

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 485 udal ordezkari bildu ziren Lizarran


haien tartean zeuden Usurbilgo ordezkariak. Giro ederrean eguerdiko 14.00etan itxi omen zen Euskal Herriko estatutuak onartu ziren asanblada. Gora eta gora oihuak ez ziren falta. Teatro aurrean zegoen jendea udal ordezkarien zain zegoen eta atera zirenan txalo zaparrada eta oihuak etengabeak izan ziren. Arratsaldean zezen plazan egin zen herri asanblada ere ikusgarria izan omen zen.

Domingo Arrillaga alkatea Madrilera joan zen

Irailaren 22an Euskal Herriko udaletako alkate edo ordezkarien %90a, **Domingo Arrillaga** alkatea ere bai, joan zen Madrilera Alcalá-Zamora lehendakariari estatutua eramatera. Azpeitiako zuzenketak sartuta onartu zuten Estatutua, ordea, inolako eztabaidarik gabe zokoratu zuten Madrilera iritsi orduko. Lizarrako estatutua izan zen, **Jose Antonio Aguirrerren** esanetan, "herriak bozkaturako autonomia haundiena izan duen testua".

Josu Aranberri

Gipuzkoako udalek bultzatuta 1976ko udal mugimendua



1931ko udalen asanbladaren ondoren, udal mugimenduak 1936 urte ingurura arte jarraitu bazuen ere, gerra zibilak lehendabizi eta frankismoak gero zapuztu zituen Euskal Herriko udalen nahiak.

Frankismoaren azken urteetan bilera klandestinoak egin ziren, bai, baina Euskal Herriko udaletako ordezkariak biltzeko 1976ko uztailaren 21ean Bergaran egin zen ekitaldi arte itxaron behar izan zuten.

Frankismoaren amaierarekin eta errejimen berriarekin ametsetan, Usurbilgo ordezkariak ere ez ziren ixilik egon. Gipuzkoako beste udal batzuek egin zuten modura, Juan Carlos I erregeari idatzi bat bidaltzea erabaki zuten erabateko adostasunez 1976ko apirilaren 3an egin zen ezohizko plenoan.

1876ko uztailaren 21ean Euskal Herriko probintzietako foruak kendu zituen legearen aldarrikapenaren men-deurrena betetzen zela eta, **Felix Aizpurua, Joxe Antonio Altuna eta Joxe Manuel Matxain** zinegotziek mozio bat aurkeztu zuten egun horretan.

Alde batetik, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzien eskubidea onartuz, foruak berreskuratzea eskatzen zuten. Bestetik, 1931ko ekainaren 14an Lizarran onartu zenaren antzeko autonomia estatutuaren eskabidea egiten zen. Eta azkenik, autonomia estatutuaren proiektua Euskal Herriko udalen batzorde baten gauzatu eta gero erregeak onartu behar zuela esaten zitzaion erregeari.

Usurbilgo udala ez zen erregeari eskaera hau egin zion bakarra izan. Pixkanaka-pixkanaka udal mugimendua berpiztuz zihoan Euskal Herrian, Gipuzkoako 81 udaletatik 20k idatzia bidaltzea erabakia zuten. Hala ere, Gipuzkoako gobernadore zibilak mozioak baliorik gabe utzi zituen.

1976ko uztailaren 21a egun haundia izan zen. Bergaran 68 udaletako ordezkariak bildu ziren, eta han ziren Andres Bruño alkatea eta Felix Aizpurua eta J.A. Altuna zinegotziak. Imanol Murua Zarauzko alkatea bidean hartu eta han joan omen ziren Bergara aldera.

Beste atxilotu bat Pello Arregiren kasuan

Donostiako epaitegiak, Pello Arregi bitxisaltzailearen hilketan parte hartzeagatik atxilotu zuteneko bat behin-behineko askatasunean utzi zuen pasa den urteko maiatzaren 19an. Hilda-koaren familia ordezkatzan duen akusazio partikularrak erabaki horren aurkako erre-kurtsoa jarri bazuen ere, epaitegi berak atzera bota du. Pasa den otsailaren 18an, kasuarekin zerikusia izan dezakeelakoan beste bat atxilotu zuten.

la urtebete pasa ondoren oraindik argitu gabe jarraitzen du Pello Arregi bitxisaltzailearen hilketak. Hilketaren egunean, martxoaren 12an, atxilotu zuten 55 urteko Antonio G.G. barakaldoarrak kartzelan jarraitzen badu ere, hilketan parte hartu zuelakoan atxilotu zuten Hipolito F.B. askatasunean dago joan den

urteko maiatzaren 19 ezkeroztik.

Azken hau epailearen aurreira eraman zutenean, sei lekukok atxilotua ezagutzen zuten hala ez zehazteko aukera izan zuten. Batek hilketaren arratsaldean atxilotutako bestearekin zegoen pertsona hura zela esan zuen duda izpirik gabe. Beste lauk ezagutu zuten, baina ez bapatean. Azken batek, berriz, ez zuen

momentu hartan atxilotua ezagutu.

Azken orduko berrien arabera, pasa den ostegunean beste pertsona bat atxilotu zuten hilketarekin zerikusia izan dezakeelakoan. Otsailaren 22an ezagutzen zuten edo ez zehaztera joan ziren 7 lekuko eta haietatik lauk behintzat, hilketaren arratsaldean Usurbilen atxilotuarekin zebilenetako bat hura zela esan zuten.



1998ko martxoaren 12an hil zuten Pello Arregi. Urtebete pasa denean hilketak argitu gabe jarraitzen du

Euskaraokea Usurbilgo frontoian



Herriko haurrek kantatzeko duten abilezia erakusteko aukera izan zuten pasa den otsailaren 22an. Ixiar Orejak aurkezten duen Euskaraokea programa grabatzen izan genituen Euskal Telebistako kamarak. Haurrak aztoratuta han ibili ziren aurrera eta atzera grabazioak iraun zuen lau ordutan. Irabazleak zeintzuk izan ziren? Gaztetxoek eta guk badakigu ja, baina tira, ez dugu ezer esango.



**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

TXURRUT
edaritegia



Giro eta musika atsegina!


San Esteban kalea, 1
Tel:943 36 00 80

ALBORTA
HARATEGIA

Beheko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

Intsumisioagatik beriz epaitua


Joxe Antonio Altuna alkateak epailearen aurrera joan beharko du beriz ere. Udalak estatu espainiarreko ejerzitza-ekin ez kolaboratzeko erabakiarengatik epaitzen dute orain ere. Martxoaren 3an, 1997an ez kolaboratzeagatik epaituko dute Donostiako auzitegian. Pasa den urteko epaiket bertan behera gelditu zen alkatearen abokatuak epaile euskalduna eskatu zuenean. Urtebete pasa ondoren oraindik bere horretan dago epaiketa, geldirik.



Hemendik aurrera metalezko, plastikozko eta brik ontziak ez dituzue zaborretara bota beharko. Beirazko ontziak eta papera birziklatzeko ontziak bazeuden, baina orain, hirugarren ontzi bat jarri dute: horia. Hemen metalezko, plastikozko eta brik ontziak jasoko dira, gero birziklatzeko. Brikak tolestatu egin behar dira, plastikozko ontziei tapak kendu behar zaizkie, ontziak hustu eta garbitzea gomendatzen da eta ontziak bata bestearen barruan ez dira sartu behar.

Bertso afaria Bota Punttubaren eskutik

Bota Punttuba bertso eskolak antolatuta bertso afaria izan zen pasa den otsailaren 20an Mahaspildegia elkarfean. 45 pertsona inguru bildu ziren bapo afaldu eta Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluzeren bertsoak entzun asmoz. Araba-Bizkaiako azpitzapelduna eta Gipuzkoako txapeldunak ez zuten huts egin. Bertsolariek giroa ederki berotu zuten afarian bildu ziren bertsozaleen gozamenerako. Bertso afariak postre bikaina izan zuen otsailaren 20an.



Elizbarrutietako misioen 50. urteurrena ospatzeko antolatutako **"Sartu mentura zoragarri honetara"** erakusketa ibiltaria Usurbilen izan dugu egun hauetan. Otsailaren 16an hasi eta 19a bitartean Udaregi ikastolako erdiko aretoan egon den erakusketarekin Angola, Ekuador eta Ruanda bezalako lurraldeetako bizitza nolakoa den erakutsi nahi izan dute. Haur eta lehen hezkuntzako ikasleak hango haurren larruan ere jarri dira egun hauetan.



Argiaren adiskideak taldeak kanpaina berri bati hasiera emango dio Usurbilen laster batean. Kanpainaren nondik norakoak aurrerantzean ezagutzera emango badituzte ere, pasa den otsailaren 20an Usurbilen harpidedun direnetatik batzuk elkartu eta aurkezpen argazkia atera zuten dema plazan. Ez daude denak, ezta gutxiagorik ere, baina aurrerantzean gehiago izateko helburua duen kanpainari bultzada txiki bat emateko ez dute dudarik izan.

Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

Ping-pong taldea osatu dute Udarregin

Astehenetan entrena-
dore eta guzti aritzen
diren arren, libre duten
guztietan hortxe ibiltzen dira
Udarregiko erdiko aretoan
mahai-tenisean. Seguru asko
bat baino gehiago ja nazka-
nazka egina egongo da ditxo-
sozko soinu hori dela eta;
ping, pong, ping, pong,ping...

Ikasturte hasieratik dabil sei-
kote bat ping pong-ean geldi-
tu gabe. Hala ere, orain dela
hiru hilabete edo hasi ziren
txapelketetan. Hiru pertsonaz
osatutako bi taldetan bana-
tzen dira eta ja hiru bat txapel-
ketetan aritu dira.

Baina nolakoak izan ohi dira
mahai teniseko txapelketak?
Seguru inork gutxik dakiela.
Izan ere, kirol hau ez da oso
ezaguna gure artean. Noizbait
gehienak ping pong-ean aritu
garen arren, lagun artean ibili
gara, ez txapelketa mailan.
Bada, orain, Usurbilen aukera
hori egon badago.

Baina, goazen harira, nola-
koak izan ohi dira txapelke-
tak? Gure "Ping ponglariek"
esan digutenez, 4 eta 7 parti-
du bitartean jokatzeko dituzte
txapelketa bakoitzean, horie-
tako bat bikoteka eta beste
guztiak banaka. Partiduak 21
puntura jokatzeko dira eta joka-



Udarregiko mahai teniseko taldea: Mikel Peñagarikano, Andoni Telleria,
Jon Yarza, Mikel Otaegi, Xabier Casenco eta Aitor Iturralde

lari batek 2 partidu segidan
irabaztean datza jokoak.

Beraz, banakako eta binaka-
ko partiduak daude, baina
"ping ponglari" usurbildarrek
nahiago dituzte banakako
partiduak, pilotari txandaka jo
behar hori ez dute oso gustoko
nonbait.

Baina nolatan mahai-tenisa?


12 eta 13 urte bitarteko sei
mutil hauek (denak mutilak
baitira...ez ote da neskaren
bat animatuko?) ahal duten
guztietan aritzen dira ping
pong-ean eta zergatik ez txa-
pelketetan ibili? Horrela, bada,

erabaki zuten talde bat osa-
tzea eta Lasarteko mutil bat,
Antonio deritzona, hartu zuten
entrenadore gisa.

Mahai-tenisaz gain egiten
dute beste kirolik; futbola,
eskubaloia, pelota...Hala ere
beti izaten dute prest pala txi-
kia ping pongerako. Dударik
gabe, mahai-tenisak baditu
bere berezitasunak beste kirol-
lekiko. Ez da korrika egin behar
eta gaitasun fisikoak ez dira
hain garrantzitsuak. Ping
Ponglari on batentzat konzen-
trazioa eta erreflexu onak dira
funtsezkoak. Noski, arina baza-
ra mugimenduetan, askoz
hobe.

Amaitu aurretik mutil hauen
eskaera bati tartetxo bat
eman beharrean nago. Egia
esan, Usurbilen ia denetik
dauka kirolariak, pelotariak
itxurazko frontoia, eskubaloian
dabilenak kiroldegia, futbola-
riak ez hain itxurazko futbol
zelaia...Non aritu behar dute,
ordea, Ping ponglariek?
Usurbilen ez dago mahai teni-
sean aritzeko aukerarik ikasto-
latik kanpo, dagokionak jaso
dezala "enbidoa".

Amagoia Mujika



Lautik lau pelota partiduetan

Andatzpe Peña Pagolako **Apelotariak txapelketa** desberdinetan murgilduta daude. Alde batetik klubean arteko Gipuzkoako txapelketan gogor ari dira kadete mailan.

Otsaileko bigarren asteburuan ekin zioten txapelketari eta ondo ekin gainera.

Irazustabarrena eta Iribarrek 18-11 irabazi zien Añorgako Gonzalez-Larrarte bikoteari.

Portu eta Arrutik, berriz, garaipena lortu zuten Urmeneta-

Lizaso añorgako pelotarien aurka, 18-11 izan zen partiduko azken emaitza.

Hernanin ere beste txapelketa bat jokatzeko ari dira, infantil mailan hain zuzen ere. **Orena eta Arrutik** osatutako bikoteak 18-12ko garaipena lortu zuen Berastegiko Urdanpilleta eta Onsaloren aurka. Bengoetxea eta Portu usurbildarrek ere garaipena eskuratu zuten, Urnietako Iradi-Etxeberria bikotearen aurka 18-6 emaitzarekin amaitu baitzuten partidua.



OTSAILAK 26 ostirala

- **Lau eta erdi barruko banakako txapelketako partidua** jokatu-ko dira arratsaldeko 20.00etan hasita.

OTSAILAK 27 larunbata

- Kadete mailako **eskubaloia partidua** (N): **Pulpo - Usurbil K.E.** Zumaiako kiroldegian.
- 2. nazionalako **eskubaloia partidua** (M): **Usurbil K.E. - Aloña Mendi.** Oiardo kiroldegian 18.00etan.
- Kadete mailako **eskubaloia partidua** (M): **Loiola - Usurbil K.E.** Loiolako kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloia partidua** (M): **Urola - Usurbil K.E.** Azpeitiako kiroldegian.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T. - Urki.** Harane futbol zelaian 16.15etan.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Urnietako - Usurbil F.T.** Urnietako kiroldegiko futbol zelaian.
- **Lau eta erdi barruko banakako txapelketako partidua** jokatu-ko dira arratsaldeko 20.00etan hasita.

OTSAILAK 28 igandea

- Hondartzako **futbol txapelketa** Kontxako hondartzan. **La Equitativa - Aginaga Sagardotegia.**

MARTXOAK 5 ostirala

- **Lau eta erdi barruko banakako txapelketako partidua** jokatu-ko dira arratsaldeko 20.00etan hasita.

MARTXOAK 6 larunbata

- 2. nazionalako **eskubaloia partidua** (M): **El Pilar - Usurbil K.E.** Gasteizen.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Ilintxa - Usurbil F.T.** Legazpiko futbol zelaian.
- Kadete mailako **eskubaloia partidua** (N): **Usurbil K.E. - Zarautz.** Oiardo kiroldegian 17.00etan.
- Kadete mailako **eskubaloia partidua** (M): **Usurbil K.E. - Donibane.** Oiardo kiroldegian 18.30etan.

MARTXOAK 7 igandea

- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Usurbil F.T - Hondarribia.** Harane futbol zelaian goizeko 11.00etan.

Emaitzak

Futbola

Otsailak 20-21

Elgoibar **2** Usurbil F.T **2** (1.R.)
Usurbil F.T **1** Alde Zaharra **3** (n.)
Usurbil F.T **11** Allerru **0** (2.ju)
Usurbil F.T **2** Ikasberri **2** (ka.)

Eskubaloia

Otsailak 13-14

Usurbil K.E. **30** Escolapios **31** (2.N.)
Usurbil K.E. **38** Almen Jakion **29** (ju.m)
Usurbil K.E. **21** Almen Jakion **14** (ka.m)
Usurbil K.E. **14** Leizaran **8** (ka.n)

Otsailak 20-21

Sestao **19** Usurbil K.E. **32** (2.N.)

Hondartzako futbola

Irrintz taberna **5** Trofeos egia **4**



Pelota

Klubean arteko Gipuzkoako txap.

Andatzpe-Pagola **18** Añorga **11**
Andatzpe-Pagola **18** Añorga **11**

Laburdurak

R.: errejionalak **ka.:** kadeteak
N.: nazionala **n.:** neskak
ju.: jubenila **m.:** mutilak



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak


Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



Kale Nagusia, 9
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

USURBIL

teriak



ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

JARRI EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA HEMEN!

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^{da} Esk
Usurbil - Gipuzkoa

943
37 19 54

INDYSTRIA ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA



Itziar Illarramendi

 Etxekoandrea

 Irakaslea

Bizitza bera bezain gogorra

Mende berri baten atarian gaude.

Mende berrirako sarre-
ra honetan iaioak gara
gauza askotan: bideo
kamarak erabiltzen,
mobilaz baliatzen,
dexente bidaiatzen
dugu, asko eta asko
dakigu kirolaz,
Interneta ere ez zaigu
arrotza egiten... Bide
berriak. Bide berri baina bide
zaharrak ere hor beti, eta bide
zahar hauetan zer egin gaitza-
rekin topatzen garenean...?

A zer MARROIA! dio batek
baino gehiagok.

Gaitza beti datorkigu ezuste-
an, bidean gurutzatzen zaigun
oztopoa da, eta ezabatu egin
nahi izaten dugu gure egunero-
ko mundutik. Sintomaren bat
agertu ezker, haserretu egiten
gara eta berehala desagertara-
zi nahi izaten dugu bere jatorria-
ri erreparatu gabe.

Sufrimendua bikoitza dugu:
osasun arazoengatik bat, eta
onartu ezinagatik bestea.
Sufrimendua onartu hutsez, sun-
tsitu badaiteke, zergatik ez ote
gara gauza egoera hau bere
osotasunean kanporatzeko?

**Gaitza beti
datorkigu
ezustean,
bidean guru-
tzatzen zaigun
oztopoa da**

Edo... zergatik ez ote
gara, gaixoarekin
bene-benetan komuni-
katzeko gauza?

Zera ulertu beharko
genuke: gertatzen zai-
gun ezer ez dela nega-
tibo. Sufrimendua
bera, gure egiten
dugun heinean gure
heldutasuna aberastu-
ko da, ez ordea ostru-
kak bezala burua ezkututzen
badugu.


kak bezala burua ezkututzen
badugu.

Bestalde, gaixoari ziurtasuna
adierazi behar diogu eta, horrez
gain konfidantza, bere mugak,
beldurrak eta bizipenak kanpo-
ratzeko eta gurekin alderatzeko
aukera izan dezan.

Denbora galtzen dugu "zer-
gatik niri?" pentsatuz. Zergatik
ez pentsatu bizitza osoan zehar
dagoela zer ikasia eta askotan
azken ikasgaiak direla zailenak?

Gaixoari eskaini geniezaioke-
en laguntzarik onena geure
kidesasuna da, geure denbora
eta alaitasuna; inoiz ez geure
ixiltasuna eta engainuak.

"HEAVY" a benetan, "gogorra"
esango du zenbaitek. Eta hala-
xe da: bizitza bera bezain gogo-
rra.






Lehiaketa



Ezagutzen al dituzu argazkian dauden hauek?

Bost izen asmatzen dituzuenon artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Mozorrotuta badaude ere, umetako aurpegi horrekin jarraitzen dute batzuk. **Gorka Karrera, Andoni Udabe, Garikoitz Alkorta, Aitziber Aranberri, Mikel Ibarreta, Nagore Gonzalez, Joseba Zubeldia, Amagoia Mujika, Gorka Etxeberria, Arkaitz Rezola, Imanol Zarautz, Oihana Lizaso, Xabier Arruti, Dioni Beraetxe, Leire Garcia, Xabier Undiano, Anartz Aizpurua, Jon Arriaga, Agurtzane Solaberrieta, Saioa Fernandez eta Izaro Lanberri** dira besteak beste azken lehiaketako argazkian agertzen direnak. Erantzun zuzenen artean zozketa egin eta... **Jokin Rezolak** izango du Antxeta jate-txean afaltzeko aukera. Zorionak Jokin!



M^o Jose Korta


Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

Tlf 943 36 14 87

01ARTZUN

OTSAILAK 27 larunbata

- Euskara elkarte eta Herri Aldizkarien Topaguneko Gazte Saileko batzordeak antolatuta **Neguko Olinpiadak**. Egitaraua ezkuin aldean duzue.

MARTXOAK 1 astelehena

- Aurtengo bigarren **odol emaldia** izango da herriko anbulategian. Arratsaldeko 19.00etan hasi eta 21.00ak arte odola emanaz ekintza on bat egiteko aukera paregabea izango duzu. Beldurrik gabe anima zaitetz!
- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan Bordatxo aurreko errotondan.
- Usurbilgo **Euskal Herritarrok taldearen sorreran** parte hartu nahi duenak, gaur Aitzaga elkartearen ilunabarreko 20.15etan egingo den bilerara joan daiteke

MARTXOAK 5 ostirala

- Guraso Eskolak, udalaren laguntzaz, 12-20 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako **hitzaldiak "Guraso eta seme alaben arteko komunikazioa, egungo arazoei nola aurre egin"** izenburupean. Hitzaldiak martxoaren 8, 15 eta 22an izango dira Udaregi zaharrean 17.00etatik 19.00etara. Bi talde egingo dira, euskarazkoa eta erdarazkoa. **Izen emateko epea gaur amaitzen da, martxoaren 5ean.** Hitzaldi hauetan parte hartu nahi duenak udalera dei dezake (943-371951) eta ldoigatigalkaldetu.

MARTXOAK 8 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.
- **Emakume eguna denez hitzaldi eta afari bikaina** antolatu dituzte. Astrologiatz jarduten duen Mila Aierbek **"Hurrengo mila urteak zer dakarkigu emakumeoi?"** hitzaldia emanango du. Hitzaldia Zumeta jate-txean izango da 20.00etan hasita. Gero, noski, afari ederra egingo dugu bertan 4000 pezetaren truke. Elkarrekin joateko nahikoa kotxe izango da. **Laurok eta Lizardin eman dezakezu izena martxoaren 6a baino lehen.**

LANPOSTUAK

- ✓ **Musika, dantza, antzerkia eta zaharberrikuntza** arloetan espezializazio ikasketak egiteko **bekak** eman eta lehen daudenak luzatzeko deialdia egin du Foru Aldundiak. Eskaera egiteko epea martxoaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago G.A.Oko 16. zenbakian.

OHARRAK

- ✎ **Pisu bat alokatu nahi nuke** Usurbilen edo Santuenean. Deitu 943-370346 telefonora eta Jabigatik galdetu.
- ✎ **Ford Transit (modelo zaharra)** merke **saltzen dut.** Interesatuta bazaude deitu gauean 943 370779 telefonora (Patxi).
- ✎ **Baseri bat erosiko genuke Usurbil, Orio inguruan.** Deitu 943 371793 (Izaskun).

EMAKUMEEN EGUNA

Eguna: martxoaren 8a

HITZALDIA + AFARIA

Gaia: "Hurrengo milaurteak zer dakarkigu emakumeoi?" Mila Aierbe.

Lekua: Zumeta Jatetxea. 20.00etan. Elkarrekin joateko nahikoa kotxe izango da.

Prezioa: 4.000 pezeta.

Izen ematea: Laurok eta Lizardi hilaren 6a baino lehen

ODOLA EMAN EZAZU

Martxoaren 1ean ekintza on bat egin dezakezu. Zure odola ezinbestekoa izan daiteke beste batzuren bizitzan.

Anbulatorioan
19.00etatik 21.00etara

Azaldu zaitetz!

NEGU OLINPIADAK

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topaguneko Gazte Saileko batzordeak antolatuta 150 gazte inguru bilduko dituen **Negu Olinpiadak** izango dira otsailaren 27an.



Atxegalde, 10 Tel. 36 65 42

GALARRAGA GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

Tel.: 943 37 01 46



Martxoak 6, larunbata

Zatoz Noaia! Kultur Elkarteko Batzar Orokorrera

10:00etan

Udaletxeko Plenu aretoan

1999ko

BATZAR OROKORREKO GAI ZERRENDA

- | | |
|---|--|
| 1.- 1997ko memoria eta balantzea | 4.- Zuzendaritza Batzordearen osaketa: pro-
posamena eta onarpena |
| 2.- 1998ko egitasmoa | 5.- Galdera/erantzunak |
| 3.- Diru kontuak:
- 1998ko balantzea
- 1999ko aurrekontua | 6.- Luntxa |

LASARTE-USURBILGO BATXILER INSTITUTUA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKOA (DBH)

16-20 urte bitartean A eta D ereduak

A) DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREKIN KOORDINATUTAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK

- Esperientzia handiko irakasle euskaldun adituak.
- Arreta berezia ikasleak Unibertsitatera edo lan-mundura bideratzeko.
- Inguruko enprekin harreman handiak.
- Batxilerreko espezialitate bakoitzean aukerako gai ugari.

B) BATXILERGOA (16-18 urte)

1. Humanitateak eta gizarte zientziak batxilerra.
2. Natura eta osasun zientziak batxilerra.
3. Teknologia batxilerra.

C) HEZIKETA ZIKLOAK


-Erdi Mailakoa (16-18 urte)

Gestio administratiboa


-Goi Mailakoa (18-20 urte)

1. Administrazioa eta Finantzak
2. Administrazioa eta Informatika sistemak
3. Merkataritza eta Marketing-a

Kupela ama sagardoa mama!



ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

IRUIN




Zubieta, Tlf: 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita

URDAIRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91
Urtarrilaren 16an irekiko dugu.

AGINAGA



Aginaga, Tlf: 943 36 67 10
Ettxeko sagardoa dastagai urte osoan.

ARRETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.